

5 NOR edo NORK I

1. Ipini ezazu atzizki egokia hutsuneetan: Ø , A, AK Bi aukera duzue, hitz osoa idatzi edo atzizkia bakarrik.

Ikur hau Ø jarri behar den tokian, ez idatzi ezer.

- Afrikako gerrak heriotza _____ asko ekarri du
- Beste edozein gerrak bezala arrazoi ekonomiko **AK** _____ ditu
- Betikoa, errugabe _____ sufritu behar han ere
- Hango haur _____ errukari dira
- Haur _____ negargura ematen dute
- Zenbait haur gose _____ hilko du
- Beste zenbait, berriz, bonba bat _____
- Den _____ eduki behar genuke betaurrean irudi hori

- Honetaz, palestino _____ ere zerbait esan lezake
- Gizagaixo _____ beren herritik kanpora bizi dira

2. Bete hutsuneak parentesi arteko hitza nor edo nork mugagabeen erabiliz. Idatzi hitz osoa.

Edozer _____ **GAUZA** _____ egiten du horrek (gauza)

Zenbat _____ ezkontzen da berriro? (alargun)

Zenbat _____ ordaintzen ditu zergak? (jende)

Lau _____ bik baino gehiago ikusten omen dute (begi)

Bost _____ gertatu dira zaurituta eta beste _____ galdu dute bizia (pertsonek; bi)

Jende _____ daki sekretu hori (gehiegi)

Gaur egun, edozein _____ dauka igogailua (etxe)

Edozein _____ erakutsiko dizu bidea. (ertzain)

Aralarren zebilela galdu zenean, bi _____ eraman zuten bideraino (artzain)

Ikasle _____ aukeratzen dute ingelesa frantsesa baino (gehiago)

Zein _____ ezkondu ditu? (apaiz)

Hiru _____ zekartzan gaurko egunkariak (asmakizun)

Zenbat _____ falta dira kurtsoa amaitzeko? (aste)

Denda _____ egiten dute egun hauetan merkealdia (asko)

Zenbat _____ botako dizut kafean? (azukre)

Zein _____ gustatzen zaizu gehiago, Durangokoa ala Zumarragakoa? (feria)

Bi gazte _____ ekarri naute bere autoan (atsegin)

Oso sentibera zen, edozer _____ egiten zion min (gauza)

Zein _____ egin dizu biblioteka hori? (arotz)

Edozein _____ ez du balio margotzeko (arkatz)

Edozein _____ piztea berdina zaizu? (argi)

Zein _____ du aulki gehiago? (areto)

Bi _____ ditugu eta biak zein baino zein altuago dira (alaba)

Jende _____ daki ingelesez ondo hitz egiten (gutxi)

Nahiko _____ etorri da (jende).

3 Pluralez eman azpimarratutako hitzak. Idatzi esaldi osoa.

1.- Haurra jolasean ibiltzen da hondartzan.

_____ **HAURRAK JOLASEAN IBILTZEN DIRA HONDARTZAN** _____

2.- Arratsaldean itxita egoten da bulegoa.

3.- Eskolan jai du gaur irakasleak.

4.- Astelehenean klasea izaten da.

5.- Katua teilatuan ibiltzen da.

6.- Esnea goizean ekartzen dute.

7.- Kotxean matrikula eraman behar da.

8.- Pintura, potean ekarri dugu.

9.- Katua neguan sukaldean egoten da.

10.- Lantegi honek ez dauka langilerik.

11.- Toki hark beldurra ematen du.

12.- Gela hura zabala da .

13.- Ontziak ura du.
